

GORA-GORA TALDEA

Gu Mikel Membibre, Ane Etxebarri, Paula Cobo, Aitor Azarloza eta Pablo Larrinaga gara eta ekimen honen bitartez, aniztasun funtzionalaren munduan barneratzea dugu helburu.

Ibaizabal Ikastolako Gizarteratzeko goi mailako zikloko ikasleak gara eta gure taldearen izena *Gora-Gora* da.

Durungaldean dagoen behar garrantzitsu bati erantzuteko elkaturiko bost kide gara. Bertan, aniztasun funtzionala duten pertsonen segregazioa pairatzen dutela deritzogu, jendartetik, neurri handi batean, kanpo egonik. Errealitate hau arazo bat bezala ikusten dugu eta, hori dela eta, pertsona hauen inklusioa sustatuko duen proiektu bat martxan jartzea beharrezkotzat jotzen dugu.